

Euskarazko itzulpen juridikoa: euskarara itzultako zitazio-jakinazpenen azterketa deskriptiboa

(Juridical translation into Basque: descriptive analysis of
summons and notifications translated into Basque)



BARAMBONES ZUBIRIA, Josu

Euskal Herriko Unibertsitatea
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea
Ingeles eta Alemaniar Filologia eta Itzulpengintza eta Interpretazio Saila
Unibertsitateko Ibilbidea, 5 01006 Gasteiz

Sarrera eguna: 2006.10.22
Onarpen eguna: 2007.01.19

BIBLID [1137-1951 (2007), 16; 45-53]

Z

itzulpen-ikasketa
Deskriptiboeta oinarrituta, lan
honek euskarazko itzulpen
juridikoa gobernatzen duten
arauak deskribatzea du helburu.
Testu itzulietan agertzen diren
erregulartasunen berri emateko,
gaztelaniatik euskarara itzultako
testu tipologia jakin bat hautatu da:
instrukzioko epaitegietako
zitazioak eta jakinarazpenak.
Egileak mamitu duen azterketa
enpirikoak frogatu egiten du testu
itzulietan sinplifikaziorako nahiz
esplizitaziorako joerak erabiltzen
direla, egokitzapenari baino
onargarritasunri lehentasuna
emanez.

Giltza-hitzak: Xede-
kultura. Itzulpen juridikoa. Itzulpen-
ikasketa deskriptiboak.
Erregulartasunak. Itzulpen-arauak.

E

presente trabajo,
basado en estudios descriptivos de
la traducción, se propone describir
las normas que rigen la traducción
jurídica al euskara. Para dar cuenta
de las regularidades que aparecen
en los textos traducidos, se ha
optado por una tipología concreta
de textos traducidos del castellano
al euskara: las citaciones y
comunicaciones de los juzgados de
instrucción. El estudio empírico
realizado por el autor prueba que en
los textos traducidos se recurre
tanto a la simplificación como a la
explicitación, otorgándose
preferencia a la admisibilidad antes
que a la adaptación.

Palabras clave: Cultura
objeto. Traducción jurídica.
Estudio descriptivos de la
traducción. Regularidades.
Normas de traducción.

C

e travail, basé sur des
études descriptives de la traduction,
se propose de décrire les normes
qui régissent la traduction juridique
en euskara. Pour rendre compte
des régularités qui apparaissent
dans les textes traduits, on a opté
pour une typologie concrète des
textes traduits de l'espagnol en
euskara: les citations et les
communications des jurés
d'instruction. L'étude empirique
réalisée par l'auteur prouve que
dans les textes traduits on a recours
tant à la simplification qu'à
l'explicitation, donnant la préférence
à l'admissibilité plutôt qu'à
l'adaptation.

Mots clés: Traduction
juridique. Etudes descriptives de la
traduction. Régularités. Normes de
traduction.

“Euskarazko testu juridikoen ezaugarri berezi samarra da, (...), hain proportzio handian itzuliak izatea, eta gainera, gehienetan bi hizkuntzetan batera, testu paraleloetan, argitaratuak izatea” (Elosegi, 2002, 517-518)

1. **Ikerlan honen oinarri teorikoak.** 2. **Ikerlan honen helburuak eta mugak.** 3. **Sinplifikazioaren hipotesia.** 4. **Esplizitazioaren hipotesia:** 4.1. Gramatika-loturak. 4.2. Lexiko-loturak. 5. **Ondorioak.** 6. **Bibliografia.**

1. Ikerlan honen oinarri teorikoak

Itzulpen fenomenoak aztertzen dihardugunean, kontuan hartu behar dugu itzulpenak “xede-kulturako gertakariak” direla eta bere baitan hartzen dituen kulturaren zati direla (Tourey, 2004, 64). Tourey-ren arabera, itzulpenak kultur giro jakin batean sortzen dira eta behar batzuei erantzuteko edota kultura bateko hutsuneak betetzeko diseinatu dira. Esan daiteke itzultzaileak, haien lan-eremua zeinahi izanik ere, xede-hizkuntzako interesen alde ari direla oroz gain. Guztiek, nork bere alorrean, funtzio berdina betetzen dute: xede-kultura hornitzea kultura horrek falta duen eta sorburu-kultura batek eskaintzen dion produktutaz.

Euskarazko itzulpen juridikoaren kasuan, euskarara itzultzen diren testuek xede-kulturaren zuzenbidearen esparruan dagoen gabezia edo hutsunea betetzea dute helburutzat. Doakigun auzian, beraz, euskarazko itzulpen juridikoak euskal kulturaren eta zehazki zuzenbidearen alorrean dagoen gabeziari egin nahi dio aurre, euskarak ez baitu tradizio juridikorik gorpuztu, hainbat egilek nabarmendu dutenez (Barambones eta González, 1994, 136-142; Urrutia eta Lobera, 1995, 134-148; Elosegi, 2002, 190-243; Gallastegi, 2005, 87-110). Gabezia jakin bat gainditzeko, jatorrizko testuek sorburu-kulturaren betetzen duten funtzio berdina izendatzen zaie itzulitako testuei, funtzio hori betetzea lortzen duten edo ez alde batera utzita.

Xede-hizkuntzari begiratzen dion ikuspegi berri honi esker, urruti oso geratzen dira duela gutxi arte Itzulpen Ikasketen esparruan erabiltzen ziren hurbilketa teoriko preskriptiboak. Itzulpen-Ikasketa Deskriptiboek¹ ekarri duten lan metodologia zientifikoari esker, ikuspegi arauemaileak alde batera utzi eta datu enpirikoak, hots, egiazko itzulpen fenomenoak, jaso, aztertu eta deskribatzen dira, beti ere itzulpen fenomenoak inguratzen dituen testuinguru soziokulturala kontuan harturik.

Sorburu-hizkuntzari begiratzen dion baliokidetzaren nozioak beti ekarri izan du berekin nola-baiteko preskripzio-kutsua. Orain dela gutxi arte, itzulitako testuak jatorrizko testuekin alderatuta aztertzen ziren eta itzulitako testuak jatorrizkoak aintzat harturik onetsi edo baztertzen ziren, itzulitako testuek agertzen zituzten ezaugarriak deskribatu beharrean. Baliokidetzeta, itzultzaileek erdietsi beharreko eredu abstraktua adierazteko erabili izan den termino teorikoa, datu enpirikoetan oinarritzen den eredu dinamiko eta deskriptibo bihurtzen da itzulpen-teoria berrien arabera. Gaur egun, xede-hizkuntza eta xede-kultura abiapuntutzat hartzen dituzten nozioek ordezkatzan dute baliokidetzaren nozioa. Nozio horietan garrantzitsuena arauen nozioa izan da.

Arauk dira itzultzaileek denbora jakin batean eta egoera sozio-kultural jakin batean testuak itzultzean hautatzen dituzten aukerak. Baker-ek arauak identifikatu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura hau deskribatzen digu:

“Norms, then, are a category of descriptive analysis. They can be identified only by reference to a corpus of source and target texts, the scrutiny of which would allow us to record strategies of translation which are repeatedly opted for, in preference to other available strategies, in a given culture or textual system. (...) They [Norms] are a product of a tradition of translating in specific ways, a tradition which can only be observed and elaborated through the analysis of a representative body of translated texts in a given language or culture (Baker, 1993, 240)”.

Beraz, itzulitako testuak deskribatzean, testu horiek agertzen dituzten jokaera errepikarien edo erregulartasunen berri eman behar du ikerlariak, izan ere erregulartasunei esker gai izango baikara garai jakin batean eta testuinguru sozio-kultural baten barruan indarrean dauden itzulpen-arauak bildu eta formulatzeko. Araua indarrean badago eta eraginkorra bada, kultura jakin bateko itzultzaileek antzeko egoeretan errepikatzen dituzten erregulartasunak erraz hauteman ahalko ditugu. Azken helburua, halere, itzulpen-ezaugarri unibertsalak identifikatzea izango litzateke, alegia, jatorrizko testuetan baino areago itzulitako testuetan gertatzen diren ezaugarri komunak deskribatzea.

Gaingiroki bada ere, esan dezagun Tourey-k hiru arau-maila bereizten dituena: alde aurretiazkoak (*preliminary*), hasierakoak (*initial*) eta eragiketazkoak (*operational*). Aldez aurretiazko arauak testuz kanpoko auziei dagozkie, hala nola itzulpen-politikari edo itzuli beharreko testu eta hizkuntzen hautaketari; hasierakoak itzulpenen egokitzapenari eta onargarritasunari dagozkie.

1. Argibide gehiago nahi duenak jo beza TOURYren liburura (1995) edo liburu horren gaztelaniazko itzulpena (2004, Rabadán eta Merino itz.).

BARAMBONES ZUBIRIA, Josu. Euskarazko itzulpen juridikoa: euskarara itzulitako zitazio-jakinazpenen azterketa deskriptiboa. *Eleria*. 16, 2007, 45-53



Hasierako arauak ezagutzeraino iristeko eragiketazko arauak ikertu behar dira. Eragiketazkoen artean matritzialak (itzulpena osoa den eta noraino den, testu-banaketa edota testuaren manipulazioa) eta arau linguistiko-testualak bereizten ditu. Guk ikerlan honetan arau linguistiko-testualak aztertuko ditugu, hau da, jatorrizko testuaren material linguistiko eta testuala ordezkatzan duen xede-hizkuntzako materiala.

Orain arte esandako guztia laburbiltzeko esan dezagun gure ikerlana deskriptiboa izango dela, xede-kulturari, hots, euskal kulturari begiratzan diola eta funtzioari edo produktuari baino arago prozesuari erreparatzen diola, hiru alderdiak loturik dauden arren.

Ikerlana aurrera eramateko eta itzulpen juridikoa zuzentzen duten arauak deskribatzeraino iritsi ahal izateko ohiko metodo zientifikoaren urratsak jarraituko ditugu: testu juridikoen corpus zehatza behatu, hipotesiak formulatu gertakariak esplikatuz ahal izateko eta, azkenik, hipotesiak baieztatzea datu enpirikoen bitartez. Lan egiteko jarraituko dugun protokoloak emaitzen fidagarritasuna bermatuko du.

2. Ikerlan honen helburuak eta mugak

Ikerlan honetan euskarazko itzulpen juridikoaren erregulartasunak jaso eta deskribatzea axola zaigu bereziki. Itzultzaileen jokaerek erakusten dituzten erregulartasunen bitartez euskarazko itzulpen juridikoa gidatzen duten arau batzuk formulatu ditugu. Helburu hori erdiesteko, euskarara aldatutako testu juridikoen corpus bat hautatu eta itzultzaileek ohartuki nahiz oharkabean erabili dituzten prozeduretan jarriko dugu arreta nagusia.

Azterketa egiteko hautatu dugun testu-corpusa epaitegi-tako normalizazio-batzordeak adosturiko idazki-bilduma bat izan da², hau da, Justizia Administrazioan euskararen erabilera sustatzeko programaren barruan herritarrekiko harremanetan funtzionarioek erabiltzen dituzten edo erabiliko dituzten testu elebidunak. Idazki-eredu guztien artean instrukzioko epaitegi-tako adierazpen-egintzak hartu ditugu aztergai eta horien artean zitazioak eta jakinarazpenak. Denok dakigunez, zitazioak nahiz jakinarazpenak Justizia Administrazioaren komunikazio ofizialak dira eta Borjak (2000, 103) proposatzen duen testu juridikoen sailkapenaren arabera, prozesua bultzatzen duten agiriak dira.

Hautaketa ez da itsumustuan egin; aitzitik, uste dugu testuek halako koherentzia bat gordezten dutela arrazoi hauengatik:

1. Testuak itzuli dituen itzultzaile-talde bera izan da: epaitegi-tako euskara batzordea. Egia da hasierako itzulpen lana beste pertsona edo enpresa batzuen mende egon dela baina itzulpenak zuzendu eta adosteko ardura euskara batzordearena da.
2. Administrazio-erakunde auzietarako jurisdikzio-arekin batera, zuzenbideko arlo guztien artean jurisdikzio penala dugu euskara gehien erabiltzen den esparrua³. Jurisdikzio penalaren barruan instrukzioko epaitegiak gailentzen zaizkie gainerako organo judizialei erabilerari dagokionez.
3. Hautatu ditugun instrukzioko epaitegi-tako idazki-ereduak dira hiritarrek epaitegi-tako harremanetan jaso eta erabiliko dituztenak. Alderdi honek berebiziko garrantzia du itzulpenek aldaketak eragiten dituztelako kultura hartzailean.

Argi dago era honetako lanek deskripzio isolatuak baino ez dituztela erakusten, hau da, ezagutza-zati bakanduak, eta lan zabalagoak beharko liritekeela ondorio esanguratsuagoak eta orokorrak erdiesteko. Lan honen espazio-mugak kontuan izanik, alait lagin kopururik zabalena aukeratzen saiatu gara⁴, corpusak nolabaiteko adierazgarritasuna izan dezan. Hortaz, lan zabalagorik egin ezik, ikerlan honetako ondorioak tentuz hartu beharrekoak dira eta hemen lortutako emaitzak beste lan batzuekin alderatu beharko dira.

Euskarara egindako testu juridikoen itzulpenak eta testu horiek aztertu izanak bide ematen digute bi hipotesi hauek ezartzeko:

- Sinplifikazioaren hipotesia
- Esplizitazioaren hipotesia

3. Sinplifikazioaren hipotesia

Sinplifikaziotzat ulertzen dugu itzultzaileek xede-hizkuntzan erabiltzea sorburu-hizkuntzan baino jostera errazagoak, hala nola menderakuntzaren ordezkariak edo alborakuntza⁵; bestela

2. Eranskinean ageri da aztertu ditugun eredu informatizatuen zerrenda osoa.

3. Erabilerari buruzko datu zehatzak ikusteko Justizia Sailaren txostenak irakur daitezke. 2001-2005era bitarteko txostenak eskuragarri daude Interneteko helbide honetan: <http://www.justizia.net/InformacionCorporativa/default.asp?Idioma=eu>

4. Kontuan hartu, esaterako, batzordeak 1.500 bat eredu itzuli eta normalizatu dituela UZEI 1997. urtean epaitegi-tako agiriak itzultzen hasi zenetik.

5. Termino horien esanahia ulertzeko, irakurleak Euskaltzaindiak argitaraturiko *Euskal Gramatika, Lehen Urratsak-III (Lokailuak)* liburura jo dezake.

esanda: jatorrizko testuek erabiltzen dituzten menderagailuen ordez, itzultzaileek xede-hizkuntzan juntagailuak edo lokailuak erabili nahiago dituzte.

Hautaketa horrek xede-hizkuntzaren berezko jokaerei erantzun diezaieke (euskarak, hizkuntzaren barneko ezaugarrien ondorioz, gure inguruko erdarek baino zailtasun maila handiagoa du mendeko perpaus luzeak eraikitzeke), edo itzultzaileek ohartuki jatorrizko testuaren sintaxikarga gehiegizkoa arintzearen egindako hautaketa ere izan daiteke.

Gauza jakina da gaztelaniazko testu juridikoak beste era bateko testuak baino menderakuntza-maila handiagoz horniturik daudela. Perpaus txertatuak amaigabe luza daitezke ia, eta horren ondorioz paragrafo oso luzeak gertatzen dira. Perpaus-txertaketa horrek, askotan, esaldiaren esanahia behar bezala ulertzea eragozten du. Gaztelaniazko menderakuntza nolabait arintzearen, itzultzaileek joserka errazagoen aldeko hautua egin dute. Ezin ahaz daiteke, aldi berean, hiritar arruntek jasoko dituztela azterkizun ditugun agiriak eta, beraz, baitezpadako baldintza da testuak ulergarriak egitea.

Hurrengo adibide honek orain arte esandakoa argitzeko balioko digu:

[1959_144] «Yo, el/la Secretario Judicial, teniendo a mi presencia a ... **le notifiqué** el contenido de la anterior resolución por medio de lectura íntegra y entrega de copia literal, con expresión del asunto a que se refiere, **haciéndole saber que** la misma no es firme y que contra ella puede interponer, el recurso indicado en la misma»

«Idazkari judiziala naizen honek, ... jn./and. aurrean izanik, aurreko **ebazpena jakinarazi diot**, oso-osoan irakurriz eta hitzez hitzeko kopia eman; gaia zein den ere adierazi diot. **Jakitera eman diot, halaber**, ebazpen hori ez dela irmoa eta ebazpenean bertan zehaztutako errekurtsioa jar dezakeela haren aurka.»

Ikusten dugunez, gaztelaniazko gerundioaren erabilera okerrari esker, gaztelaniazko testua luzatu egiten da eta mendeko perpaus baten tankera hartzen du. Euskarazko testuan, berriz, itzultzaileek perpausa banatu eta bi perpausak lotzeko juntadura erabili nahiago izan dute. Horretarako *halaber* emendiozko lokailuz baliatu dira.

Ondorengo adibide honetako testu itzulian perpaus bakuna ageri da; jatorrizkoan, ordea, perpaus elkartua dugu, mendeko perpaus erlatibo murrizgarria hain zuzen:

[1959_081] «En el procedimiento de referencia **se ha dictado la resolución que** a continuación se reproduce: »

«Aipatutako prozeduran, ondorengo **ebazpena eman da:**»

Gaztelaniazko hainbat perpaus erlatibok euskaraz emateak sortzen duen ezintasunari aurre egiteko hau bezalako prozedurak ere erabiltzen dira:

[1568-46] «Y para que sirva de citación a la persona **cuyo** nombre y dirección consta al pie de la presente ...»

«Amaieran aipatzen den pertsonari (**bukarran daude izena eta helbidea**) zitazioa egiteko balio dezan ...»

Adjektibo-menderakuntzaren ondoan parentesi artean doan perpaus bakunaren alde egin dute itzultzaileek.

Gaztelaniazko jarduna nola kateatuz doan ikusteko, zitazioaren zergatia eta inguruabar guztiak biltzen dituen paragrafoari erreparatu besterik ez dago. Paragrafoak perpaus bakarri osatzen du eta perpaus nagusi horren barruan nahi beste perpaus kateatu ahal dira. Horren aurrean itzultzaileek informazio nagusia perpaus batean bildu eta gainerako argibide guztiak zerrendatzen dituzte sistematikoki:

[1568_46] «Por haberse así acordado en resolución de esta fecha dictada en el procedimiento arriba referenciado, deberá comparecer ante este Juzgado, **sito en** ... teléfono ..., el próximo día ... a las ... horas, **a fin de** prestar declaración en calidad de IMPUTADO, sobre ... **ocurrido** el ... en ...»

«Goian aipatutako prozeduran, gaurko ebazpen bidez eta ondoren azalduta dagoen salaketa dela-eta INPUTATUA zarenez, epaitegi honetan deklarazioak egitera agertu behar duzula erabaki da. **Epaitegiko helbidea:** ... Telefonoa: ... Eguna: ... Ordua: ... Salatutako gertakaria: ... Gertakariaren eguna: ... **Gertakaria izan zen herria:** ...»

Azterketa honen helburua ez bada ere, esan dezagun sinplifikazioa sintaxi mailan ez ezik lexiko mailan ere gerta daitekeela, adibide honetan ikusten denez:

[1568_46] «... si carece de **medios económicos**»

«...abokatuari ordaintzeko **dirurik** ez baduzu»

Kasu honetan gaztelaniazko terminoaren eremu semantikoa euskarazko hitzarena baino zabalagoa da. Erabilerari dagokionez ere badago desberdintasunik: euskarazko hitza arrunta da; gaztelaniazkoa jasoagoa.

4. Esplizitazioaren hipotesia

Hainbat egileren arabera (Blum-Kulka, 1986; Baker, 1993), badirudi testu itzuliek jatorrizko testuek baino esplicitazio maila handiagoa era-

kusten dutela. Izan ere, itzultzaileek sorburu-tes-tuen gainean egiten dituzten interpretazioek xede-hizkuntzan testu erredundanteagoak sortzera eramaten dituzte, Blum-Kulkak (1986, 19) nabar-mendu duenez: "The process of interpretation per-formed by the translator on the source text might lead to a TL⁶ text which is more redundant than the SL⁷ text".

Testuko osagai guztien arteko kohesioa gorde dadin, hizkuntzak erabiltzaileen eskumene-an jartzen dituen baliabideetako bat da esplizita-zioa. Kohesioaren bidez osagai guztien arteko loturak zaindu eta anbiguotasuna saihesten da, testu itzuliak jatorrizkoak baino erredundanteago-ak gertatu ohi diren arren.

Testua osatzen duten erlazio semantiko eta formalak egokiak izan daitezten, kohesio-mekanis-mo batzuk erabiltzen ditugu. Kohesio-mekanismo horietako batzuk hizkuntzaren barneko egiturari zor zaizkio; beste batzuk, aldiz, hizkuntza bakoit-zak egiten duen hautaketa estilistikoari. Alberdik eta Sarasolak honela definitzen dituzte kohesio-mekanismoak:

Kohesio-mekanismoak testualizazio-meka-nismoak ditugu, eta beren funtzio nagusia gaia-ren garapena eta azpigaien artikulazioa gauzatzea da. Beste hitzez esanda, testuaren harilkatzea gauzatzea. Elementuak eta kontzep-tuak identifikatu ahal izatea da kohesioaren era-giketarik garrantzitsuenetako bat. Elementu kohesio-emaileen artean hurrengoak ditugu: ize-nordainak, erakusleak, artikulatu mugatua, adber-bioak, juntagailuak, menderagailuak, testu antolatzaileak (lokailuak eta esapideak)... (Alberdi eta Sarasola 2001, 270).

Azkerketa sakonagoak egin beharko badira ere, badirudi itzultzaileek errepikapenaren eta pro-nominalizazioaren⁸ artean aukeratu behar dutene-an, errepikapenaren alde egiten dutela. Hartara, errepikapenaren bidez saihesten da elementu anaforikoren bat erabiliz sor daitekeen anbiguota-suna, batez ere euskaraz, non elementu anafori-koa identifikatzeko arazoak egon daitezkeen (gaztelaniaz genero-komunztadura dela eta erra-zago identifikatzen da). Adibide batzuen bitartez esplizitazioa nola gauzatzen den ikusiko dugu.

[1959_128] «Debe comparecer con el certifi-cado del seguro obligatorio del vehículo matricu-la ... y documento acreditativo de **su** vigencia.»

«Agertu beharko duzu ... matrikulako ibilgai-luaren nahitaezko aseguruaren ziurtagiriarekin eta **aseguruaren** indarraldia egiaztatzen duen agiriarekin»

Goiko adibidean izenorde anaforiko bat, esaterako *horren*, *haren* edo *bere*, erabili beharre-an, itzultzaileak errepikapenera jo nahiago izan du eta anaforaren bat erabiliz gero sor zitekeen anbi-guotasuna saihestu du (*horren*, *haren* edo *bere* erabili izan balu, duda sortuko zitzaigukeen ea aurrekaria zein izan ote zitekeen, *ziurtagiria* ala *asegurua*).

Hurrengo bi adibideetan ere jatorrizko tes-tuaren osagai anaforikoak erabili beharrean, itzul-tzaileak esplizitazioaren aldeko hautua egin du:

[1959_035] «Asistir a las sesiones del juicio oral en el concepto **indicado**»

«Ahozko judizioko saioetan parte hartzea, **akusatua** zaren aldetik»

[1568_28] «...y apoderar a otra persona para que presente **en dicho acto** las pruebas de des-cargo que tuviere»

«...eta beste pertsona bat ahalordetzeko aukera izango duzu, deskargu-frogak aurkez di-zan **judizioan**»

Esplizitazioa sarri erabiltzeak arautzat har-tzeko justifikazio nahikoa den arren, guztiarekin ere bada arau honekin bat ez datorren adibiderik. Esplizitazioaren arauarekin bat ez datorren arau honi *implizitazioa* deituko diogu. Hona arautik des-bideratzen diren adibide pare bat:

[1568_28] «... y que podrá acudir de Letrado, si bien **éste** no es preceptivo»

«... eta, **Ø** derrigorrezkoa ez bada ere, abokatuaren laguntza eduki ahal izango duzu»

Euskarazko testuan mendeko baldintzaren subjektua isilduta dago, implizituki baitago, nahiz eta arazorik ez izan perpaus horren subjektua aurrekariarekin –kasu honetan geroago badator ere–, hots, *abokatuarekin* lotzeko.

[1568_35] «Le notifiqué la anterior resolución por lectura íntegra y entrega de copia de **la misma**»

«Aurreko ebazpena jakinarazi diodala, oso-soan irakurriz eta **Ø** kopia literala emanaz»

Aurreko adibidean gertatzen zen bezalaxe, oraingoan ere gaztelaniazko erreferente anafori-koa esan gabe utzi da euskarazko testuan, kopia zeri dagokion argi samar baitago.

6. TL: *Target Language*, hots, xede-hizkuntza.

7. SL: *Source Language*, hots, sorburu-hizkuntza.

8. Batez ere izenak eta izen-sintagmak izenordain eta erakusleen bitartez ordezkatzeari deritzo pronominalizazioa.

Jarraian Øverås-ek (1998) ingeles-norvegie-razko corpus paraleloak ikertzeko jarraitzen duen bidez baliatuko gara gure corpusean aurkitu ditugun esplizitazio-adibideak zehatzago azaltzeko. Xede-hizkuntzan areago esplizitatzeko erabiltzen diren kohesio-loturek esplizitazioek eragiten dituzten aldaketak esplikatze balioko digute.

Kohesio-mekanismoak gramatika- zein lexi-ko-loturen bidez erdiets daitezke eta biek ala biek errazten dituzte eta hein handi batean kontrolatu ere testu barruko erlazio semantikoak. Esan nahi baita, kohesioa lortzeko erabiltzen ditugun osagaiek gidatu eta zehaztuko dute irakurleek testuei emango dieten interpretazioa.

4.1. Gramatika-loturak

Esplizitazio gramatikala ahalbidetzen duten bi baliabide aztertuko ditugu: *eransketa* eta *zehaztapena*.

4.1.1. Eransketa

Eransketaren bidez xede-testuan txertatzen dira sorburu-testuan ez dauden juntagailuak edo lokailuak. Hitz bakunak ez ezik perpausak ere lot daitezke.

[1568_28] «(Apercibiéndole) que en caso de residir fuera de este término, podrá dirigir escrito a este Juzgado...»

«Udalerritik kanpo bizi baldin bazara, **berriz**, zure buruaren defentsan idazkia bidali ahal izango duzu epaitegi honetara...»

Kasu honetan itzultzaileak aurkaritzako lokailu bat erantsi du, agian itzultzaileak egindako interpretazio-lanaren ondorioz.

Esapide honetan ere argi antzeman daiteke itzultzaileek egindako interpretazioa ezkututzen dela itzulitako testuaren barruan:

«en legal forma» _ «legeak agindu bezala»

Beheko adibidean aurkaritzako lokailu bi txertatu ditu itzultzaileak. Ondorioz, xede-testuak jatorrizkoak baino enfasi handiagoa du:

[1959_037] «Si dejara de asistir y no se produjera la suspensión del juicio, podrá ser sancionado con ...»

«Agertzen ez bazara, **baina, hala ere**, judizioa atzeratzen ez bada, ... isuna ezarri ahal izango zaizu»

Jarraian datorren adibide honetan sorburu-testuan perpaus nagusi bakarra ageri zaigu eta

horren barruan hainbat mendeko perpaus txertatu. Xede-testuan hiru perpaus nagusi ditugu, hirurak lokailu bidez lotuak. Argi ikusten da nola sorburu-testuko paragrafoa hiru zatitan emateagatik itzultzaileek hirurak lotzeko kohesio-marka batzuk, hots, emendiozko lokailu batzuk, erabili behar izan dituzten testuaren batasuna ez apurtzearren.

[1959_144] «(le notifique el contenido de la anterior resolución), (...) con expresión del asunto que se refiere, haciéndole saber que la misma no es firme y que contra ella puede interponer el recurso indicado en la misma.»

«...aurreko ebazpena jakinarazi diot (...) eta hitzez hitzeko kopia emanez; gaia zein den **ere** adierazi diot. Jakitera eman diot, **halaber**, ebazpen hori ez dela irmoa eta ...»

4.1.2. Zehaztapena

Zehaztapentzat ulertzen dugu gramatika-lotura baten ordean informazio semantiko zabalagoa duen beste baliabide gramatikal bat erabiltzea.

Topatu dugun adibidean gaztelaniazko perpaus erlatibo murrizgarriek sortzen dituzten arazok saihestearren itzultzaileek hautatu duten bidea askoz ere erredundanteagoa da eta karga semantika handiagoa dakar berekin:

[1959_085] «En la comparecencia puede proponer los medios de prueba que puedan practicarse en el acto o dentro de las veinticuatro horas siguientes sin rebasar las setenta y dos horas desde su puesta a disposición del Juzgado»

«Agerraldian frogabideak proposatu ahal izango dituzu, **baldin eta** ekitaldian bertan edo hurrengo hogeita lau orduan –gehienez ere epaitegiaren esku jarri eta hirurogeita hamabi orduan- **gauzatzeko modukoak badira**.»

4.2. Lexiko-loturak

Hallyday eta Hasanen arabera (ØVerås-ek aipatua, 1998, 577), “discourse does not wander at random from one topic to another but runs on reasonably systematic lines with a certain consistency of topic and predictability of development”. Esan nahi baita, testu bateko gaia, genero-konbentzioak edo testuak iradoki edo jakintzat eman ditzakeen hitzak lexiko-kohesioak eskaintzen duen egituraren barruan kokatzen dira. Lexiko-kohesioari esker, ezkutaturik dauden erlazio kontzeptualak azaleratu egiten dira. Horregatik, hain zuzen ere, sorburu-testu baten eta xede-testu baten arteko lexiko-kohesioan gertatzen diren aldaketek eragina izan dezakete testuaren esanahian.

Itzulpenaren bidez sorburu-testuak izan ditzakeen esanahi implizitu eta esplizituak aldatu

egin daitezke. Aldaketa horietako batzuek estiloari eragingo diote; beste batzuek, aldiz, esanahiari.

Ikusi dugunez, testuaren koherentzia, hau da, “testuari dagokion zentzuzko edo intenzionalitatezko efektua” (Alberdi eta Sarasola, 2001, 270), erabiltzen ditugun kohesio-mekanismoen mendean dago. Koherentzia, dena den, ez dagokie bakar-bakarrik gramatika loturei, baita erabiltzen ditugun lexiko-loturei ere. Aurreko atalean egin dugun bezala, lexiko-atal honetan ere bi eratako lexiko-loturak aztertuko ditugu: eransketa eta zehaztapena.

4.2.1. Eransketa

Eransketatzat ulertzen dugu sorburu-hizkuntzako Ø-osagai bat proposizio batekin edo bestelako osagaiekin ordezkatzea. Itzultzaileek egindako lexiko-eransketek argi uzten dute itzultzaileek sorburu-testuaren gainean egin duten interpretazio-prozesua, adibide honetan ikusten denez:

[1568-27] «Citará Vd. a las personas que luego se dirán y **en el concepto que se expresa**»

«Zitazioa egingo diezu gero aipatuko diren pertsoneri (...) ager daitezen **bakoitzak judizioan duen izaera adieraziz**»

“Bakoitzak judizioan duen izaera” mendeko perpausa itzultzaileek egindako interpretazioaren emaitza da eta horren ondorioz euskarazko testua erredundanteagoa da.

Beheko adibidean itzultzaileek aditzondo bat erantsi dute, aditzaren eremu semantikoa nolabait ere zehaztu edo mugatzen duena:

[1568_28] «...parándole el perjuicio a que hubiere lugar en derecho»

«...eta zuzenbidean **horrelakoetarako** zehaztutako kalteak izango dituzula.»

Hurrengo adibidean izen sintagma bat erantsi zaio aditzondorari:

[1959_066] «En el caso de residir **fuera** puede dirigir escrito a ...»

«**Udalerritik** kanpo bizi baldin bazara...»

4.2.2. Zehaztapena

Kategoria honen barruan hedapenen edo ordezkapenen bidez eragindako esplizitazio-aldaketak sartuko ditugu.

Esapide hau zehaztapen-kasu baten adibidea dugu, itzultzaileen interpretazioaren emaitza hau ere:

«Y en prueba de ello, ...» _ «Jakinararen gainean dagoela adierazteko...»

Hurrengo adibidean, euskarazko esaldian mendeko perpaus bat txertatuz zehaztu egiten da diruaren zertarakoa eta horren ondorioz semantikoki berdinak ez diren bi perpaus ditugu:

[1568_46] «...si carece de medios económicos...»

«... **abokatuari ordaintzeko** dirurik ez baduzu...»

Egia da askotan zaila egingo zaigula esaten esplizitazioen bidez sorturiko aldaketek noraino eragiten dioten esanahiari, baina goiko adibidean semantika-aldaketa nabarmenak gertatu direla argi dago.

Hurrengo adibide honetan gaztelaniazko testuan ageri den latinezko terminoa esplikatuta ageri da euskarazko testuan:

[1959_145] «Notificación de auto libertad y constitución de obligació apud acta»

«Askatasuneko autoa jakinaraztea eta agertzeko betebeharra (apud acta) hartzeko **erreke-
rimendua egitea**»

5. Ondorioak

Ikerlan honetarako hautatu dugun corpus juridikoaren itzultzaileek testu itzulietan erakusten dituzten itzulpen-erregulartasunen berri eman nahi izan dugu. Izan ere, azken helburua erregulartasunen bidez itzulpen-arauek formulatzeraino iristea baino ez da. Egin dugun azterketa enpirikoaren bitartez, hasieran planteatu ditugun bi hipotesiak bete egiten direla ondorioztatu dugu, eta, hortaz, testu itzulietan sinplifikaziorako nahiz esplizitaziorako joerak argi azaltzen dira.

Oro har esan daiteke testu horietako itzultzaileek sorburu-hizkuntzako ezaugarri sintaktiko eta estilistikoak alde batera utzi nahiago izan dituztela eta xede-hizkuntzako paradigma ohikoagoen alde egiten dutela. Toury-ren arauen sailkapenaren arabera eta hasierako arauetara dagokienez baieztatu daiteke itzultzaileek onargarritasunari ematen diotela lehentasuna egokitzapenaren gainetik. Esan nahi baita, sorburu-hizkuntzako arauetara moldatzen saiatu ordez, itzultzaileek xede-hizkuntzako arauetara jarraitzen saiatzen dira testu itzulia xede-kulturan onartua izan dadin.

Hasieran esan dugu gure ikerlanak ez duela arauemailea edo ebaluatzailea izan nahi. Halere, zentzu komunaz baliatuz esan daiteke esplizitazioa itzultzaileek testua ulergarriagoa egiteko sorburu-testuaren gainean egindako interpre-

tazioaren emaitza dela, xede-hizkuntzako testua erredundanteago bihurtzen den arren. Gainerakoan, beste hizkuntza batzuekin egindako corpus-ikerketetan gauzatutako ikerlanen ondorioz, badirudi esplizitaziorako joera itzulpen-prozeduratzat edo, nahiago bada, itzulpen-arauzat hartzeko aski arrazoi daudela. Sinplifikazioaz denaz bezanbatean, ordea, badirudi itzulpen-estrategia arriskutsuagoa izan daitekeela, jatorrizko testua xede-hizkuntzako arauetara eramateko egiten diren gramatika- edo lexiko-aldaketek eragin zuzena izan dezaketeelako testuaren esparru semantikoan, bereziki sinplifikazioaren bidez esanahia murrizten bada ulergarriagoa egin nahian.

Ikerlan honetan azaldutako ondorioak euskarara itzultitako testu juridikoen corpus txiki baten emaitzak dira. Hortaz, corpus zabalagoak ikertu beharko dira eta hemengo emaitzekin alderatu, formulatu ditugun itzulpen-erregulartasunak eta, beraz, arauak, baieztatu edo, bestela, ezeztatzeko.

6. Bibliografia

- ALBERDI, X.; SARASOLA, I. *Euskal Estilo Libururantz. Gramatika, estilo eta hiztegia*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2001.
- BAKER, M. "Corpus Linguistics and Translation Studies", In: Mona Baker, Gill Francis; Elena Tognnini-Bonelli (ed.) *Text and Technology*. Philadelphia/Amsterdam: John Benjamins, 1993.
- BARAMBONES, J.; GONZALEZ, O. "Euskarazko zuzenbidea: printzipio orokorrak eta orain arteko ibilbidea itzultzailearen ikuspegitik", In: *Senez* 15, X. urtea, 1994: 123-159 orr.
- BLUM-KULKA, S. "Shifts of Cohesión and Coherence in Translation", In: J. House & S. Blum-Kulka (ed.), *Interlingual and Intercultural Communication*, Tübingen, 1986; 17-35 orr.
- BORJA, A. *El texto jurídico inglés y su traducción al español*. Bartzelona: Ariel, 2000.
- BORJA, A. "La investigación en traducción jurídica", In: García Peinado eta Ortega Arjonilla (zuz.), *Panorama actual de la investigación en traducción e interpretación*. Granada: Atrio, 2004.
- ELOSEGI, A. *Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminología*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea (Doktorego tesiak Saila), 2002.
- EUSKALTZAINDIA. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-III (Lokailuak)*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1990.
- GALLASTEGI, C. "Itzulpen juridikoa eta euskararen historia", Larrazabal S. eta Oregi, E. (koord.), *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabideak*. Bilbo: Euskal Gaien Institutua, Deustuko Unibertsitatea, 2005.
- LAVIOSA, S. "Core patterns of lexical use in a comparable corpus of English narrative prose", In: *Meta* 43:4, 1998; 557-570 orr.
- LAVIOSA, S. *Corpus-based Translation Studies. Theory, Findings, Applications*. Amsterdam-New York: Rodopi, 2002.
- ØVER, S, L. "In Search of the Third Code: an Investigation of Norms in Literary Translation", In: *Meta* 43:4, 1998; 571-588 orr.
- TOURY, G. *Los Estudios Descriptivos de Traducción y más allá. Metodología de la investigación en Estudios de Traducción*, Raquel Merino eta Rosa Rabadánen itzulpen eta argitalpena. Madril: Cátedra, 2004.
- URRUTIA, A.; LOBERA, A. (arg.) *Euskara, Zuzenbidearen hizkera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1995.

Eranskina

Eranskin honetan gure azterketarako erabili ditugun agiri normalizatuen eredu informatizatuak agertzen dira. Eredu bakoitzaren izendapenaren

ondoan azaltzen den erreferentzia zenbakia web orrian agertzen den berbera da.

Erref. Zk.	GAZTELANIAZKO IZENBURUA	EUSKARAZKO IZENBURUA
1568_28	Cédula de citación denunciado (agente)	<i>Salatuarentzako zitazio-zedula (agentea)</i>
1568_27	Cédula juicio oral secretario	<i>Ahozko judiziorako zedula, idazkariarena</i>
1568_29	Cédula citación denunciante (agente)	<i>Salatzailearentzako zitazio-zedula (agentea)</i>
1568_35	Notificación y emplazamiento acusado	<i>Jakinarazpena eta akusatua epetzea</i>
1568_46	Cédula de citación a imputado con obligación de comparecer	<i>Agertzeko obligazioa duen inputatuarentzako zitazio-zedula</i>
1568_47	Cédula de citación a perjudicado con obligación de comparecer	<i>Agertzeko obligazioa duen kaltetuarentzako zitazio-zedula</i>
1568_46	Cédula de citación a testigos con obligación de comparecer	<i>Agertzeko obligazioa duen lekukoentzako zitazio-zedula</i>
1959_035	Cédula citar acusado a juicio oral (juicio rápido) (art. 800.2)	<i>Akusatuari ahozko judiziorako zitazioa egiteko zedula (juizio azkarra) (800.2 art.)</i>
1959_037	Cédula citar testigos/peritos juicio oral (juicio rápido) (art. 800.2)	<i>Lekukoei/adituei ahozko judiziorako zitazioa egiteko zedula (juizio azkarra) (800.2 art.)</i>
1959_042	Diligencia de citación a partes/testigos a juicio rápido (art. 800.2)	<i>Alderdiei/lekukoei judizio azkarrerako zitazioa egiteko eginbide (800.2 art.)</i>
1959_085	Cédula de citación al detenido	<i>Atxilotuari zitazioa egiteko zedula</i>
1959_081	Cédula de notificación genérica	<i>Jakinarazpen-zedula orokorra</i>
1959_082	Cédula de citación al imputado	<i>Inputatuari zitazioa egiteko zedula</i>
1959_083	Cédula de citación a ofendido/perjudicados	<i>Ofendituari/kaltetuari zitazioa egiteko zedula</i>
1959_069	Notificación de auto de libertad y de la obligación de comparecer apud acta	<i>Askatasuneko autoa eta agertzeko betebeharra (apud acta) jakinaraztea</i>
1959_068	Cédula de citación de testigos	<i>Lekukoei zitazioa egiteko zedula</i>
1959_067	Cédula de citación perjudicado	<i>Kaltetuari zitazioa egiteko zedula</i>
1959_066	Cédula de citación responsable civil subsidiario	<i>Erantzule civil subsidiarioari zitazio egiteko zedula</i>
1959_128	Cédula de citación denunciado (art. 636 CP)	<i>Salatuari zitazioa egiteko zedula (Zigor Kodeko 636 art.)</i>
1959_144	Notificación de sentencia dictada en faltas	<i>Falta-judizioan emandako epaia jakinaraztea</i>
1959_145	Notificación de auto de libertad y constitución de obligacion apud acta	<i>Askatasuneko autoa jakinaraztea eta agertzeko betebeharra (apud acta) hartzeko errekerimendua egitea.</i>